



Iturria: *Gora Begira*, Zamarripa abadea. Emeterio Verdes-en Irarkolan, 1927.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZamarripaGoraBegira.htm>

GORA BEGIRA

Paulo Zamarripa

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

GORA BEGIRA

ZAMARRIPA abadeak
EGINIKO
OLERKI GOI-USAÑEKOAK

BILBON
EMETERIO VERDES-EN IRARKOLAN
Correo-kalean, 9 garren etxean
1927-ko urtean



ESKARIA NEURE GOARGIARI

O Eleiz-zale, Euskal-zale
ta Erri-zalea
zarealako, iru bidar
maitegarria
zaitudan, Goargi maite
maite maitea!
Ekazu orrako zeure
zeru-grazia,
eiteko zeure antzera
kantu doneak...
erri-zale, eleiz-zale,
euskalzaleak.

GELDIRIK

Txori bat ikusi dot...
O ze txoria!
Ago bellegi, ego urdin,
papar gorria;
dana politasunez
ondo yantzia...
O ze txori polita!
Ze ikusgarria!

Etzetik ur daukadan
ikondo baten
iko-garau gozo asko
daukadaz aurtan,
ta onetariko iko bat
asi da yaten
txoria, ta asi naz ni
berari aituten.

Polito ikusteizan dot
leyo batetik;
baña ondo baño obeto
ikusteagaitik,
leyoa zabaldu dot,
eta bertatik
txoriak iges ein dau
neure ikondotik.

Ene, badoa ikotik
txori polita,
leyoan zarateak
ikaratuta!
Leyoa irigi barik
ikus neinken ta,
emen nao ni irigia,
ai! damututa.



—Ez zaitetz urrun yoan,
txori polita,
esan deusatz, biotza
ondo minduta;
baña bazoaz, zoaz
zerbait kantauta,
yan dozunak be zerbait
balio dau ta.

Gorputza, Jaunak einda,
polita dozu,
ta abotsa be polita
aurki eukikozu...
Yan dozun ikoaren
zorraz deustazu,
ta, arren, kantuz zor ori
ordaindu eidazu.

Txoriak erantzun deust:
—Ara, bakizu:
zeure begi biokaz
ikusiko zu;
ta olan, neu ikustez
poza artu bozu,
poz orregaz ikoa
kobraz deustazu.

Ta au esanda, txoritxu
papar gorriak
astindu dituz bere
egotxu biak,
eta, o ikustea izan da
nire begiak
ikusiko egaztada
zoragarriak!

Baña yoan yat arin
gora ta gora,

ta ein dau olango baten
eztatik nora...
Noiz biurtuko ete da
neure ikondora,
kantuz ordainduteko
ikozko zorraz?

Ai, nok leukan zarriritxu,
txori maitea,
egaz edo geldirik
zeu ikustea!
Erdi laster... Otu yat
leyoa ixtea
ta leyo-aurreko ikoa
zeutzat istea.

Geldirik eukiko dot
neure leyoa,
geldirik leyo-aurreko
zeure ikondoa...
Geldirik emen gauzak
egongo dira;
eta geldirik neu be,
zeuri begira.

Gatikan, 1922-ko urtean



AI, TXERREN!

Ai, Txerren, Txerren, zorigaiztoko
 guztien Buru nausia,
 amarik bako seme galdua,
 zeure erruz Goitik yausia!
 Aita Jaungoikok, zeuk sortu-orduko,
 irabazi eutsun auzia;
 ta aingeru on batek bere espateaz
 ai! atara eutsun zuzia.
 Ta ordurik gora, zure itxureak
 daukan grazia guztia
 da orrako aurreko bekoki astuna
 adar baltz bigaz yantzia,..
 ta orrako atzeko lepo ego errea...
 eta atze buztan luzea...
 Ez ikusteko da ohea zure
 itxura itxusi itxusia!

Galdu zenduan aingeru-antza,
 galdu zenduan zerua,
 galdu zenduan Aita, o ze Aita!...
 ta Ama uta zeutzat yayoa.
 Galdu zenduan zoriontasuna,
 aingeru zital eroa,
 bear zar baño gorago imiñi
 nai zendulako burua.
 Ezta, ez, errua Zeruarena!
 Zeurea da, bai, errua!
 Ta ezta iñor zugaz errukituten,
 zoritxarreko aingerua,
 ta iñon bakerik aurkitu-eziñik
 yabiltzu beti gogoa...
 Ez eukiteko da ohea zure
 nekezko bizi-modua!

1923-ko urtean

EUSKEREARI IL YAKU ARZAK!

Ai, gaurko neurtitz samiñak
 dodaz negarrak egiñak!
 Nire lumara
 dator negarra
 begietatik ugari,
 ta orra yoatzu kantari.

Nire negarrak zugana
 doaz, Amatxu laztana,
 esaten Zeuri
 yakula guri
 il Arzak, geure laguna
 ta zeure seme kutuna.

Antonion biotz ederra
 il ta yatzi da lurpera.
 Biotz eder au
 lurrak artu dau,
 ai, bere autsezko errayetan!
 errai bildurgarrietan!

Biotz au, bizi zanean
 emen, lurraren ganean,
 ibil zan zarri
 euskaldunari
 kantatzen zeure ontasuna
 ta zeure garbitasuna.

Eta orain nire malkoak,
 begi negartsuotakoak,
 daoz negar baten,
 zeuri kantatzen
 Arzak onaren biotza...
 ta Arzak onen eriotza...

1904-ko urtean



GATIKA

Erri polit bat ikusgurea
daukana betor Mugira...
ta apur bat gorao igonda imin beiz
begiak ona begira...

* * *

Au da Gatika, Bizkaiko erririk
politena, politena,
GATIKA baño USOA edo olao
izena bear leukena!

Erri polit au begi zurrari
uso bat yako iruditzen.
Ta, egiaz, egaz eiteko prest daon
uso bat legez da agertzen,
bere musturra Mungian daula,
ta egoak, bata Laukizen,
eta bestea Yatabe-aldean,
eta buztana Urdulizen.

Urdulizeri deutsalau dauko
Butroiko auzotegia.
Ta baleukie zeure begiok
ortik araño ikustea,
ikusko zeunke gaztelu eder bat...
besterik ez langoxea...
Torrecillako Markes prestuak
bere diruz eregia...

* * *

Begitu onako elizaldera...
Ezta ikusteko gauzea?
Bakutsu? Aituizu zein lerdan lerdan
yagiten dan elizea,

torre zoli bat burutzat daula
eta buruan kurtzea,
guztia egoki, guztia orni ta
galantasunez betea.

O zein gozoa begi onarentzat
Gatikako erri polita,
bere gauzarik ederrena lez
eliza ederra yagi, ta
elizearen edertasunaz
politasuna yantzita,
agertzen dana politasunez
ta edertasunez beteta!

Au da Gatika! Au erri polita!
Polita, ta, era berean,
osasuntsua, osasuntsuena
izan leiteken bestean.
Osasuna ta politasuna
ementxe eskondu zirean;
ta euron alaba Gatika emen dao,
eurok onduko lurrean.

Milla arimatik gora da erri au...
milla ta eun baukaz, neure ustez...
eta guztiok bake gozotan
betiro ikusi nai neunkez...
Osasuna ta politasuna
gozaurik ementxe bakez,
ia bagoaz Zeru ederrera,
kurtzetik gora, artez artez!

1923-ko urtean



EZIN GORAGO

*(González Tablas Santiagori
il zanetik urtebete garrenean).*

Bildurra zer dan eztakizula
ibili zara, Santiago,
ta eriotzea ezautu dozu
bildurra baño lenago.
Bai. Zeure gorputz eregiaren
bizia baño geyago
maite izan dozu España andian
bizia, ta orra illik dago...
zeure etseko ta zeure adizkide
maite onegandik asago...
España-erria zabaltzen daula
berori daon baño arago.

Gorputza yausi yatzun lekuan
ikusten naola ta nago
zure biotza, larri dagola...
o ezin ezin larriago!...
moro-artetik aurrera aurrera
nondik gorputza eroango,
nondik España zabalao ingo,
nondik ingo au andiago.

* * *

Naikoa egin dau zure gorputzak;
ezin eikean geyago;
ta zure izenak ezin igon lei
igon daun baño gorago.

Zure arima ta gorputza baten
ezautu dodaz, Santiago;
ta Euskera ezautzen neugaz zeu asi
ziñeanetik geyago,

zeure arpegian zeure arimea
ikusten naola ta nago,
malmuzkeririk bape eztozula,
argia baño argiago...
Baña urrunetik ikusten nao ta
nire miña onetan dago.

* * *

A, baña uste dot ikusitea
olan baño askoz urrago...
zeruan bertan, zeure izen andi
andia baño gorago!...

1923-ko Mayatzean



BESTE LAUTXU LAROGETAMASEI URTEKO BATERI

Gatikatik Gamizera
yoanik antxiña,
Gamizen bizi zara orain,
Maruri Martiña.
Ai beste lau bat urtean
biziko baziña!..
Eukiko zeunke aurki aurki
eun urteko adiña.

Larogetamasei urte
daukazuz lepoan...
Eztodaz neuk orrenbeste
eukiko beingoan.
Larogetamasei urte!..
O ze urte pilloa!
Eun urten yaube egingo al da
olango atsotxua!

Larogetamasei urte
artuta daukazuz;
ta beste lautxu artu zeinkez
denporan porazuz.
Eta eurok osasunagaz
artuten badozuz,
Gatikako seme-alabak
itzel poztukozuz.

Eta entzutea izango da a
pozezko santzoa...
Gamizen bizi da andra bat..
ene!!!... eun urtekoa,
Gatikako geure errian
yayo ta azikoa,
bertoko potontegian
bateatukoa!!

1923-ko Agorrillean

AMA MARIARI

O Maria,
neure argia,
neure poza, neure Ama,
zeure eguna
dala ta, ona
kantaz nator zugana.

Ai, nok leuken,
neuk nai neunken,
zeruzko abots leguna,
kantatzeko
ta ospatzeko
zeure garbitasuna!

Nor legoan
zeure ondoan,
entzuten santu-santak
ta aingeruak
ta zeruak
eiten dotsuezan kantak!

Mariari
ein eskari
kanta ein ezin deutsanak,
ba kantari
eztanari
be baki entzuten Amak.

Gaur Amari
ein eskari,
ta emongoskuz graziak,
izateko
bere antzeko
seme-alaba garbiak.



Ama zori
oneko ori
zara benetan Ama,
ta ezeizu itxi
asko ez gitxi
loitzen zeure laztana.

Ta il-orduan,
oi-buruan
ikus zagidazala,
neugaz baten,
guzurtuten
Txerren deunga zitala.

AUPA, LAZTANTXU!

**AMA BAT BERE SEÑAGAZ OLGETAN.
OLGETAN-OLGETAN OIÑEZ
IRAKATSI GURA DEUTSO**

I

Ormeari deutsalara imiñi ta diñotsa:

Aupa, laztantxu! Aupa, biotza!
Ta ez paunik egin, ederra!
Trago-txago, ia!... Olantxe, andia!
Zeure amatxuri begira!

II

*Ormeari deutsalara zutunik itxita,
aldendu egiten yako apur bat.
Eta sagar bat eskuan
erakusten deutsalara, diñotsa:*

Txatxa ementxe nik,... goxo goxoa,...
ointxe adarretik artua.
Txoko-txoko ia bazatoz ointxe
berau artzera, zerua!

* * *

Oi, oi!... Badator gure txatxana,
amatxun zoragarria!...
Aitak ikusten egon bear leuke
geure jolas au, maitea!...
Baña ani-ani yoan zan bera,
yoan bear ebalako,
gizon txar baten gorrotoarren;...
eztakit noiz-arterako.



Aita ani-ani yoan zanean,
neure errayetan zengozan;
ta bere antzeko seme lorea
ikusi barik yoan zan.

III

Olgetan nekatu egin da seña.

Gaurko naikoa da... Apatxe, ederra!
Apatxe amatxun altzoan!
Noizbait ikusi zagidazala
zeure aita onaren besoan!

* * *

Berak apapa eroango zaituz
ikirikiaren ganean,
ikusten zelan yolastzen diran
bekerekeak mendian.
Noiz gero? Laster uste dot, seme...
Jaunak gura izan dayala!
Txina naikoa egin dainean
diñost etorriko dala.
Datorrenean, erosikoguz
etxe au ta orko mendia.
Naña ta txatxak sartuko doguz
menditxu orretan, andia;
baita kokoak naya izateko
kokokotxuak be erosi,
ta eurari artoa yaten emoten
laztantxu orreri irakatsi...

IV

Loak artu dau seña.

Ene! Lo dago gure lorea,
gure biotzen zatia!

Loak artu deust betiro itzarrik
euki nai neunken zuzia.
Lo zagoz, neña zoragarria?
Bijondaizula, maitea!
Amari baño obeto yaotzu
ardura barik lo eitea.
Ai, nire loa urria da ta,
zarritan, arte bakoa;
zeure aitatxu ona zelan ete dan
yabiltalako gogoa!

* * *

Ai, ointxe ointxe baletor bera,
geure aingerutxu maitea,
ta entzun zeruko aingeruokaz
darabiltzun berbetea!!
Urrago egonda be ezto ulertzen
neuk zeuron berbeta ederra;
baña ederra ta goxo goxoa
nai ta ez izango da bera.
Alkarri esanda bazengoze lez,
lotan daoz beste bi bere:
sutondozaile dogun Mitxitxu
eta Tototxu umezale.

* * *

Titia itxita, popak yateko
ixartu zaitezenean,
Tototxu ona ta Mitxitxu, biak,
yarriko yatzuz aurrean,
zeure eskutxuak botakotsezan
anpurrak koixu-gurean;
ta, orain bater! ta orain besteri,
ta egiñik noizik-beñean,
botakotsezuz popatxu-anpurrok
barre-santzotxu-artean.

* * *



Olangoetan nai neunke ikusi
aitatxu zeuri begira!
Ai, baña aitatxun gorputz-begiak
gugandik urruntxu dira!!

V

*Ama be loak artu dau. Ta bera
amesetan egon dan artean,
seña yausi egin yako altzotik.
Señaren negarrak baño
Tototxun ausiak iratzartuten dabe.*

Ixartu yaku txatxan andia,
baña ixartu yat negarrez.
Zer da, biotza? Paun egin dozu?
Ai, bai, laztana, ta oso errez!
Ama be loak artu deutsu ta...
A, eztakit zelan, maitea,
loak artu nau oingoan, zuri
egin dakizun kaltea!
Zeure aitatxugaz ames gozotan
egon naz, seme tatana,
gogoratuten zertzuk gauza egin
datorrenean gugana.
Ta olango baten, bira-biraka,
yausi zatxataz altzotik,
eta Tototxu, zeure laguna,
txau txau asi yat bertotik.
Pupurik? Oi, ez! Eztozu artu, ez.
Ta ez bear bere, laztana!

* * *

Zer orain? Barre? Oi, ze paltsoa
dan gure txatxan-txatxana!

* * *

Txagin barria darakust aointxe
gureko paltsokoteak.
Ai, ai, oraintxe ikusi balei
neure senartxu maiteak!
Oi, zein ederra daon, txagiñean
atxikin txikia iminda!
Oi, zein ederra dan beti bere,
Jainkoak alantxe eginda!
Txagin barriak urteten deutse
bapere zer txarrik barik,
eta emen nauko txagin guztiak
urtenda ikusi-gurarik.

Papa ta popak yaten badaki;
mamaxua edaten bere bai;
ta txitxitxua txi eginda yaten
laster ikusikogu alai...

* * *

Txatxa ori bota, kaka dauko ta.
Txatxi egingo nik ostean.
Eutsi txotxoa: mau mau, ederra.
Pitxia ekarko, au yatean.

VI

*Amak eztau gura bere seña eutsi
ta tati egterik. Eta berau Inpernuko
mamoak eroaterik eleuke gura.*

Orra or pipiak mau eiten dabez
yausten yatzuzan anpurrak,
eta Tototxuk itanduten dau
noiz yango ete daun txakurrak.
Tato ta tato egin dayala
esan, ederra, Tatari;



eskuan dozun tutua yo zeuk,
 izan dagizun dantzari...
 Eta Totori, lagundu gura
 badeutsu yolas onetan,
 esan saririk nagusiena
 izango daula gaur bertan.
 Ez egin, gero, *eutsi ta tati*,
 mamoaik eroan ez zaizan!
 Ai, mamoa bat dao guztiz okerra!
 Okerragorik ezta izan
 ta izango bere ez. Txerren da bera:
 arimen lapur andia.
 Ez dagizula inoiz be ikusi,
 ai, mamoa orren arpegia!!

VII

*Amak mosuka, yan-bearrean
 darabil bere seiña, ta aitatzun
 besoan ikusi gura leuke.*

Ma emon amari! Ma, ma, biotza!...
 Ma neuk be zeuri ezpaneat:
 ma bat aitatzun ordeztu, ma! Ta orain,
 beste bat neure izenean...

* * *

Apa, laztantxu! Apa, biotza!
 Apatxe amatxun altzoan!
 Ai, nok ikusi zeinkezan ointxe
 aitatzu onaren besoan!!

GORROTO BETARRARI GORROTO

Gorrotuari gorroto deustat;
 gorrotodunai, erruki;
 ezin daulako gorrotodunak
 egizko bakerik euki.
 Ai, gorrotoan bizi diranak
 eztira baketan bizi!
 Eta, ai, bakerik eztan lekutik
 atsedena beti igesi!!
 Egizko bake ta atsedenean
 gura dot biotza ikusi
 ta, imiñi nai dot maitetasuna
 gorrotoaren nagusi.

Gorroto bat dao bakarrik, legez
 biotzeratu al doguna:
 txarkeriaren aurka Jaungoikoz
 zuzen yagiten yakuna;
 gorroto orretxen sustrai dalako
 Jaunaren maitetasuna,
 geure onerako Jainkoak Berak
 sortu ta biztu oi deuskuna.
 Gorroto orreri gorroto ez izan!
 Maitetu bere izakuna,
 berori da, ba, Jaunaganako
 maitetasunan laguna!

Baña gorrotau begiz biotzak
 gorroto betar tristeak,
 Txerren zitalak ta Aragi argalak
 okerrik sortu ta aziak.
 Olango bako maitetasuna
 maite bei biotz biziak!
 Eta jainkozko maitetasuna
 maitetzen daben maiteak



maiterik yagon dagizala orain
 Jaungoiko maite-zaleak!
 Ta gero... bere maitetasunez...
 zerura eroan guztiak!!

1919-ko urtean

LEGEZKO MAITETASUNA

EZKONGEI BIEN ARTEKO BERBALDIA

Neskatilleak diño:

—Maite nozula, maite nozula
 zarritxu esaten deustazu,
 ta neuk zeu maite zaitudazala
 esan daizudan nai dozu.
 Maite nozula sinistu daidan,
 arren, maitetu nagizu
 neuk maitetzea nai dodan eran,
 ba zelan egin bakizu.
 Zeu ta neu biok maite gaituzan
 Jauna begira daukazu,
 maitetasuna santututeko
 ta egin zorizko ni ta zu.
 Maitetasuna Jaun Goiko orreri
 biotzez opetsi yozu,
 ta Beragaitik maite nozula
 erakutsiten botsazu,
 neure biotza Beragan dao ta,
 Beragan emongo yatzu.

Mutillak erantzuten deutso:

—Gauza ederra ta gauza andia da
 legezko maitetasuna,
 ta indar andiko gauzea da ta
 indar egiten deuskuna.
 Ainbeste urtetan Jaungoiko onagaz
 aitzurik ibilli dana
 ona emen dago gertu egiteko
 zeure ta Beran esana.

Jaungoikoagaz aitzuta egon naz,
 baña damu dot egona.
 Eskerrak zeuri, gogoratu naz
 Beragaz, Katalin ona.



Bizi da errian Bere ordezkotzat
iminta daukan gizona;
bizi da oindiño geure abadea,
kristiñau ein ginduzana,
mutikotxutan amaika meza
pozik erason neuntsana,
ta bere eskuak batu dayala
zeurea neureagana.

1921-eko urtean

ASUE

Sondike-aldera, laiño bat bagarik,
Artxanda-goitik begitu bozue,
etxe-yazeko lorakaz yantzirik
baratz polit bat ikusi dozue.
Jaunak gutzako onerako egiñik,
era orretako baratza da Asue,
zelaitxo baten ganean yarrita.
Ederra guztiz, ezpalitz polita.

Bilbo galantak eztaukan zoria
Artxandak dauko beretzat arturik:
Asu polita, pozez ugaria,
beti ikustea indarrik ein barik.
Benetan dauko zorion andia
gaur-arte Artxandak beraganaturik.
Ezteutso Bilbok Artxandar eskatu
iñoiz, apur bat daitela alboratu?

Sangurizko urak eztabe yoan gura
Asutik baño; ta Asueri emonik
mosu gozoak, doaz itxasora;
ta, ez pozik baña, apalik, otzanik,
doaz beronek diñotsen lekura,
beronen loren usañak arturik.
Asuen beti egon nai leukie.
Ai, zelan egon ondo balekie!

Lorok usañez gozoak badira,
baratza bada gorputzez polita,
bakizu zeitik? Esangot? Begira.
Nire eritxian, eurotan yagita
bizi dalako bizkorrik *Euskera...*
Asustar danak maitetu beye ta
gozotasuna ezta yoango Asutik;
politasunak iraungotso zutik.

1902-ko urtean



GEURE TXORITXUAK ILTEN!

Burua bero daukadanean
gogamen illun baltzez suturik,
biotza daukat goibel ta larri,
gogamen baltzok ito-gurarik.
Ta orduan diñost biotzak: Paulo,
gogamen txarrok ilteko indarrak
eztozu? Jaurtin egizuz, ia,
kezka-zaleok arin zeugandik!
Zer diñotsue gogamen orrek?

—Eztiñeustie niri gauz onik:
Amatxu Euskerak ia daukala
bere bizia lurperaturik.
«Begitu, Paulo, diñoste zarri
gogamen onek, danok bat eiñik:
Zeinbat arima, Euskal-erriko
lurrean yayo ta emen azirik,
dagozan emen, or, an ta arago
euskera-apur bat be ikasi barik!
Ta euskerea ondo dakien eurak
geyenak dagoz erderaturik!!
Bai, Paulo, alperrik zuen bearrak,
zuen ekiñak danak alperrik...
ta alperrik zuen negar ta deyak.
Emen zuentzat beti gorturik
egongo dira geyen-geyenak.
Eztabe entzungo zuen berbarik».
Zer diñostazu, neure biotza,
gogamen onen berbok entzunik?

—Bota gogamen orrek kanpora!!
Eztogu bear gogamen txarrik;
eta eurokandik urrun gabiltzan,
beste gogamen batzuk arturik.

—Non dagoz baña gogamen orrek?
Eurok billatzen naiko bearrak
egin dot...

—Erdi neugaz batera.
Leku gozo bat zutzat daukot nik.
A ze lekua! Aritz-artean
ta erreka-ondoan dago gorderik!
A ze lekua! Kerizpe ederrak
apaintzen dabe ainbeste aldetik;
mendietatik datozen urak
ezotasuna dakartse albotik;
uren ertzean aretx bat dago
arrorik goruntz yagia, zutik,
eta aretx onen ganean dabiltz
ainbat txoritxu miñiak jasorik
zeruruntz, Ama Euskera zarra
albait ondoen erezi-nairik.

—Txoritxu euskaldun ereslariak
maite dodaz nik txikitxutatik.
Goazen bada, biotz maitea,
goazen biok, arin ta pozik.

Zorioneko aretx gurena!
Naigarria da zure bizia.
Berrixe-aldetik yatziten yatzu
ur zugatzale ta ibiitaria,
mosua emonaz, atsegintzera
zeure sustrayon gorputz zolia.
Txoriak zeure adarretara
datoz artzera pozez aulkia,
yarraituteko soñu gozotan
eresi samur poztugarria...
Pozez dantzut nik orain eresten
egodun talde ereslaria.
Pozarren dakust mur mur egiñaz
ona datorren ur leun garbia.
Poza da nitzat emen ikusi



ta entzuten dodan guzti guztia,
baster onetan dakustalako
iruditurik Euskal-erria.

Au da lekua! Barrero diñot:
Au da lekua! Goitik txoria
euskeraz dabil neugaz batera
eresten Ama agurgarria,
ta azpitik urak doaz astiro...
ikasi-nairik geure eresia,
lepo-ganetan artzen dabela
txori guztien irudi argia.

Ekin eresten, ekin gogotik,
egodun talde ereslaria!
Euskal-zaleak zuek bazare,
ni naz betiko txori-zalea.
Txikitxutatik, txori kutunak,
izan da nire gurari errea,
esku-ganetan, miñik ein barik,
mosuka zurok erabiltea.

Ta eresten ekin eben pozarren
euskal-soñuan txori guztiak,
txoritxu euskaldun, Euskal-erriko
Erregiñaren otsein zoliak.
Eurokaz nire gotargi maite
Euskera Amaren olerkariak
kantatebazan liratzu baten
berak eiñiko neurtitz barriak.
Gure soñura mugitzen ziran
berezi atako zugatz guztiak;
gure soñura dantzatzen eben
aretx guztien adar ta orriak...
Olan gengoan kantuz poztuten
kanta-kantari neu ta txoriak...
Ai, baña alango baten, beingoan
ixildu ziran gure ezarriak!
Zek ditu ixildu ain uste gabe

Euskal-erriko ereslariak?
deituten eben, naibage andiaz,
aretx-orritxu ta urtxu garbiak.

* * *

Zek?... Ai, eiztari txori-iltzalleak
ixildu dituz geure txoriak!
Sutots bategaz il dituz bi ta
uxatu dituz beste guztiak.

* * *

Ai, ai, eiztari biotz gogorrak!
Ai, ai, eiztari sentzun bageak!
Zer dala ta ilten dozuez gure
txori kantari maitegarriak?
oyu egin eben era batera
aretx-orritxu ta urtxu garbiak.

Nire lagunok esan eutsena
ez entzun einda, txori-iltzalleak
artu ta gorde zituzan pozik
berak illiko txoritxu biak.

Pozik zagoz e? —esan neuntsan nik,
bere egiñenaz asarraturik—
Gauza andiren bat ein dozula ta,
egongo zara zeu orren pozik.
Baña yakizu zeure egite orrek
eztaula poztu emen besterik.

1905-eko urtean



MAKALIK

Ecce, quem amas, infirmatur.

Ara, zuk maite dozun au, makalik dago.
(Joan. XVIII, v. 3)

Jesus! Aita! Egunokaz nago makalik,
Gauza on bat egiteko gogaldi barik.

Gaubaz ta egunez

Beti dabil larririk nire arimea.

Jesus! Ilgo ete da ba zure semea

Larritasunez?

Jesus! Zeugana noa ta ez zaite urrundu,
Bada gogoia naiko ein yat illundu...

Ene! Urrunago

Bazoaz, bear-bada, amatauko yat.

Ia, biotz sutsu orren txinparta argi bat!...

Ia!... Eske nago.

Tira! Badakit orain zer dan mundua,
Guzurrezko atsegiñez ondo apaindua.

Poz guzurtiak

Dira bere poz danak. Ai! guzurregaz

Datoz, ta etorri-orduko, igesi ta egaz

Doaz guztiak.

Ezteutset yarraituko. Beyoaz danok,
Biotza, ai! onen utsik itxi deustenok!

Eta urrengoan

Agertzean, esango deutset garbiro:

Alde ortik! Ez zaiteze sartu barriro

Nire gogoan!

Zu barik atsegiña ezta ziurra,
Atsegiña eztalako inoiz guzurra;

Ta Zeu bakarrik.

Jesus, Zeu zara Egia. Zeu, Jesus ona...

A, ezin aurkitu neinke nik zoriona,

Zu aurkitu barik!

Zeugana noa bada, Jesus maitea,

Ta orratxe daroatsut biotz tristea,

Biotz galdua,

Munduko guzurrezko atsegiñakaz

Ta onek itxi deutsezan neke danakaz

Ain makaldua.

Ezteutsut, ez, Aitatxu laztana, itandu

Ta ezteutsut itanduko ia berandu

Etegoazen...

Zetako? Zeu or zagoz geure begira,

Eta biotzak diñost arbiñik: Tira,

Tira, goazen!

Tira! Bagoaz ointxe gaixo erkin biok,

Biotz ta arime motel errukarriok,

Biok Zeugana,

Biok osasun eske, biok batera,

Biok batera eltzeko zeure senera,

Jesus laztana.

Ai, baila! Zer da au, Jesus? Eztogu indarririk,

Eta norako gara indarririk barik?

Ene! Ezetara

Ezin gara goratu. Ezin, Jauna, ezin!!

Zer da au? Egorik bako txoriak bezin

Melgoak gara.

Ekazuz, Aita, egoak! Betor indarra!

Ixuri zeure eskutik aize goitarra,

Aizetxu orregaz

Goraturik, goyazan gora ta gora,

Osasunaren billa, orra bertora

Egaz eta egaz!

1907-ko urtean



AU POZA!

Gogo illunaz nenbillen
aldiko baten
samiñez beteriko
urak edaten.
Ai, ze ur mingotsak
edan dituzan, Jesus,
nire biotzak!

Biotz au neunkan beti
illun illunik...
Beragana ezetorren
gozotasunik...
Ta Atsekakea
asi yatan deituten:
Doakabea!

Amurruz yagi nintzan
bere kaltean,
Pozaren eskuetan
Ilteko ustean...
Eta beingoan
begitu neban Poza
non etegoan.

Edari mingost ori
edan-bearra
gauza gogorra da... ta
ai, nire indarra
dago il-añean!
esan eban biotzak
negar-artean.

Aingeru bat, berba onek
entzun-orduan,
yagi zan arimearen

barru barruan,
neuri esatera
bera be emen dagola
neugaz batera.

Indarrrik bear badot,
eskatuteko,
eta biotza indarrez
berak beteko
deustala ederto;
lurreko pozak baño
askoz obeto.

Ekazu! erantzun neuntsan
begi biakaz,
ba ezin neban barbarik
ein ezpanakaz;
ta ordu berean
imiñi eustan kurtze bat
biotz-ganean.

Kurtze onetantxe daukat
neure Erregea,
atsekabe guztien
Jaun ta Jaubea.
Jesus, au poza!!
Ezta atsekaben bildur
orain biotza!

1910-eko urtean



MUTIL BATEN ABADEGEITUTEA

Ken, Txerren guzurtia!
Ken, Txerren zantarra!
Atzera! Atzera! Atzera,
pizti inpernutarra!

* * *

A! zer? Maite nozula?
Guzurra!! Guzurra!!
Bakit zer zarean zu,
arimen lapurra.

Zoaz, guzurti tzarra, yoan zaitze inpernura,
Eskeintzera atsegiña, dirua ta omena.
Zeruaren ordeaz eztot ezer be gura;
Zerua da ba, nitzat, gauzarik onena.

Zerua galdu daidan nai zeunke, zeuk lenago
Ordu negargarrian galdu zendulako..
Ai, Txerren ondamutsu zitala, zer geyago
Nai dozu galdu daidan zeure pozerako?

Ta oindiño bere esesten
darraizu, zitala,
ustez zeure egoetan
lotuko nazala?

Ai, ez, alperrik zara
lapur errimea,
eztozu zeuretuko,
ez, nire arimea!

Aingeru bizkor bat da
nire yagolea.

Berak zainduten deustaz
gorputz ta arimea.

Jaungoiko bat dot Aita,
Birjiña bat Ama,
ta Ama onen dei samurrak
naroe Aitagana.
Ta Aita zeruan dago
ta leku guztian,
baña nai dau zeruan
ikusi dagidan.

Eta orregaitik imiñi dodaz
oñak zeruko bidean,
aingeru oneri eskua emonik
beronek eroan nagian...
Aingeru onetxen laguntasuna
ta Aita beraren grazia
naikoa dala diñost Amatzuk
eiteko bide guztia.
Baia bidean imiñi zeinken
edozein soster galgarri
utsa ta ezer ez izango dala,
yarrantzen bautsat berari.

Banoa bada, ta eztozu zetan
ekin esesten albotik.
Nire gogoak eztau gurako
bide au baño besterik.

Bidea bada gogorra bere,
leku gozora naroa,
ta, zeren bildur izan neinteke,
lagun au neugaz badoa?
O ze laguna! Zintzo zintzoa,
bape guzurrik bakoa;
bera ondo izanik, gura nabena
egin zorionekoa...

* * *



A, baiña, au zer da? Olango pozik
 eztot asmau nik sekula.
 Argi pozezko soñuz yantzia
 yatorrt zerutik burura,
 ta argi beratan Aitatxuk diñost
 abade egingo nazala.
 Abade, abade. Bai, bai, abade.
 Abade egingo naz bada.

Ta o zein pozturik imingo ditun
 barri ain pozgarrizkoak
 lurreko aita-ama biotz oneko
 kristau zar zintzo zintzoak!
 A, bai! Zintzorik egingo dabez
 euron alegin guztiak
 zeruko Aitaren gogo done au
 betetu al dayan semeak.

Ta o zein gitxitzat daukadan orain
 arima au zeruratzea!...
 Anai askoren arimatxuai
 zurok eiñiko kaltea
 desegin nai dot... Auxe da oinganik
 neure pozezko ardurea:
 lagun onetxen laguntasunaz
 zurori arimak kentzea.

Zoaz ego baltzokaz
 arin inpernura,
 zeure arrokeri andiak
 sortu eutsun lekura!
 Gizonari itxi geldi...
 dojala zerura!!

1910-eko urtean

PEKATUARI

O pizti loi, atsitu, saskel, gorrotogarri,
 Erpetan Eriotza gorderik dozuna!
 Zorigaiztokoa zan ainbeste neke larri
 Zabalduteko yayo ziñean eguna!

Aita dozu Luzifer. Luziferren buruak
 Sortu zaituz «*Jauna, zeu beste naz*» esanik.
 Ordu negargarrian!... Beingoan Inpernuak
 Zerupearan agertu dira zabaldurik...

Ta ara doaz, ai! Luzbel eta bere lagunak
 Ospatutera nekez zeure sortuera,
 Adurrez ezaindurik euron edertasunak,
 Galdurik zoriona bakeaz batera.

Jaunak aurkitu ditu euron arpegietan
 Zeure adur saskelaren tistil atsituak...
 ta marrez esan deutse, aserrez, ai! benetan:
 «*Zoaze orra, surtera, madarikatuak!*».

Garbirik euki nau dau Zeruko jauregia
 Jaunak, ez pekatuen adurrez loiturik...
 Beyoa aingeru-talde Beran kaltez yagia,
 Loitu barik adurrez geyago aingerurik!

Ikaraz, ai! aingeru garbirik geldituak
 Ikusi dabe laster loyen buruetan
 Zure mosu saskela... ta arriturik, buruak
 Bildurrez gorde dabez ego zurietan.

Zoaz, bai, Pekatua, zoaz zeure tegira!
 Naiko kalterik dozu egin, ai! Zeruan!
 Ainbat aingeru zeure txistuaz busti dira!
 Naiko lagunik dozu eukiko Inpernuan!...

* * *



Jaunaren aserrez beroturik, Zeruak
«Bera Luzifer!, dabe gorrotoz esaten,
Ta bera Luziferrek daukazan aingeruak!
Beyoaz estuturik kate gori baten!».

Tximizteak argiaz irigi dau bidea...
Bide zorigaiztoko... Inpernurakoa...
Bide orretatik doa aingeru txar taldea,
Aurretik dala Luzbel buru galdukoa.

Goyetan bitartean Migel Goiaingeruak
«*Nor da Jauna besteko?*» deitzen dau suturik,
Ta «*Iñor ez!*» dabe esaten trumoyen durunduak,
Luzbelen belarriak mindu ta gorturik...

* * *

Orain, ail, Pekatua, begituizu ara bera...
Yatzi dira Inpernura Luzbel ta lagunak.
Bakutsuz? Galdu dabez, zorionaz batera,
Zerutarren antza ta zeruko ondasunak.

Buruak adar bigaz, margo baltzez egoak,
Buru ta egoak daukez guztiz ezaindurik...
Orra or izarrak baño askoz ederragoak
Zirean aingeruak txerren biurturik!...

* * *

Ta oraindik kalterako dira zure alegiñak?..
Amataurik zeruan ainbeste izar argi,
Lurrean zerurako yayoriko birjiñak...
Zeruko usaindun lorak... nai dozuz ebagi?

O pizti, loi, atsitu, saskel, gorrotogarri,
Erpetan Eriotza gorderik dozuna!
Zorigaiztoko da ainbeste neke larri
Zabalduteko yayo ziñean eguna!

1904-ko urtean

LORA-ORRIAK

*Bakotxa bere etxetik
Jaunaren etxera,
guztiok gatoz ona,
Ama onen aurrera.
Lora bana dakargu
gaur bere altarara,
beste bat yaurtin dayan
geure arimetara.*

Gure biotzak
ertzira, ez, otzak;
ta orain iñoizko beroen
zeure begira
azartu dira
kantatzen... albait ondoen.

Maitte zaitugu
uda ta negu,
urteko sasoi danetan;
baña geyago
ta agiriago
gau ta egun loratsuetan.

Maitetasuna
da dakarguna
lora onen orri-arteetan.
Geugaz ei datoz
lorok... ta gatoz
maitetasunaz batean.

Lurreko lorak
ilkor ilkorak
ta igartukorrak izanik,
usain legunez
ta edertasunez
yantzita dagoz apaiñik.



Albait ederren
imintearren
orrako zeure altarea,
norbaitzuk egin
dabe, ba, alegin
lorak billatzen, Andrea.

Baña zeruan,
zeure inguruan
yagi direan klabelin,
lirio, bioleta,
larrosak eta
baizen ederrik topa ezin!

Gure alegiñak
dira oso erkiñak
lur au eiteko zerutu;
ta ona emen... ezin
zeruan bezin
ondo guk Amatxu ospatu.

Tira, Aingeruak,
tira, Zeruak,
egin guk ezin doguna!
Aintzatu ederto,...
guk baño obeto,...
eresiz geure Kutuna!

* * *

*Agur, Ama laztana,
Zeruko larrosa,
Jaunaren atsegín ta
Aingeruen poza.
Eutsi ta artuizu, Amatxu,
agurtzat biotza.*

Agur, Amatxu maltea,
doi zerutarrez betea,
agur, bai, Zeruko atea.
Agur, bagoaz,
pozarren goaz,
Ama aintzaturik, umeok,
seme-alabatxu maiteok.
Ama, orain zar ta gazteok
bedeinka gaizuz guztiok.

1908-ko urtean



JESUSEN BIOTZARI

Jesusen Biotz laztan, Zeu zara
Maitetasun onan bizia.
Botaizu geure biotzetara
Maitetasun orren azia.

O Jesus maitearen
Biotz Santu santua,
neure onen ostatua
izan zaite oinganik!
Zeu zara neure osasun,
bake, poz ta ondasuna.
Zeure laguntasuna
bear bear dot nik.

Geure biotzak datoz
Zeure orren pozean,
ta artuizuz biotz danok
Zeure Biotzean.
Ondo dogu izatea
zeureak onean,
ta olantxe bizi Zeure
maitetasunean.

Zeureak gozuz
Gatkarrok, Jesus;
ta Zeutzat artuta
bedeinkatu gaizuz.

Ume-zale da Jesus,
ta ume izan gaitzean
beti, Jesusek beti
maitetu gagizan.
Naiz ta denporaz azi
ta andi egin gorputzak,
umetasuna ezpeye
galdu iñoiz biotzak.

Zeureak gozuz,
Gatkarrok, Jesus;
ta Zeutzat artuta
bedeinkatu gaizuz.



UNTZEA, OLA TA MALLUA (GERTIRUDIA)

Bein ol bat yosten arotz bat ibil zan
untzeaz, askok eiten dabean gizan.
Baita bere esan daigun
mallua ebala bere bear-lagun.
Untze gogorran otsak
ziran olantzat guztiro mingotsak;
ta untze biotz bakoak
ikusten dituz olaren malkoak,
baña gogorrik diño:
«Bota malkoak! Geyago be oindiño
botako dozuz, ola.
Ixuri malkoz negarra ta odola!».
Olak, entzunik ori,
erantzun deutso untze gogorrari:
Pozik ago ni mindun ikustez?
Eu be ezago ba zorion beteaz.
Malkoz bustiten dot neure ingurua,
baña euk be eztaukak ondotxu burua.
Mallubari, ba, eskerrak,
aor artzen dozak ots gogor ta okerrak.
Emen euk neuri egiñiko miñak
kentzen al deusak malluak euri eiñak?

*Gizonak be... batzuk... untze-irudira,
eurok emoniko nekeai begira...
eurok artuta be... poztu egiten dira.*

IL DA!

*(Bera il zala entzun zan egun berean
egin ta argitaratu zan olerki au. Ibaizabal
izeneko izparringi euskaldun asterokoan).*

Yayo zan egun baten... negargarrizko eguna!..
Ebaren sagarrean sortuta Eriotza..
Adanen zorigatxa zan bere ugatz biguna,
Ta azi zan saminduaz gizonan biotza.

Alargun eskonduak, umezurtz umetxoak,
Lurbiran imintea da bere bizia;
Zoribagako danen negar eta malkoak
Janarizat artzea alegin guztia.

Ori da Eriotzea, baratz baten yayota
Lorak igartu-nairik beti diarduna.
Lorarik ederren bat igartu dau ta bota
Eleiza-baratzetik... Geure poztasuna!..

Il yaku, kristiñauak, il yaku Aita maltea;
Il da geure ondasuna, il da geure Argia;
Il da yakiturizko iturri urez betea,
Il yaku Amairugarren Leon leñargia.

Il da... Baña Eriotzeak beragaz eztaroa.
Yatzi dira Zerutik millaka aingeruak,
Eta Leon Andian arimea eurokaz doa
Pozarren, ikusirik zabalik zeruak.

Deedarrez urten dabe zerutik zerutarrak
Artu-gurarik bera euron inguruan,
Ta aingeru-soñu baten arima onen deedarrak
Lumen in Caelo! diño, arturik Zeruan.



Zoaz, zoaz, Aitatxu, zoaz pozik zerura
 Artutera irabazi dozun jauregia...
 Baña noizik noizera begituizu mundura...
 Emen daukazu zeure kristau-artegia!...

Asuen, 1903-ko garagarillaren 21-ean

ELIZEA TA EUSKERA

*Donapaleoko euskal-yayetan, 1903-ko
 urtean, lenengo saria arturiko olerkia.
 Aita Daniel Baerteleri eskeñia.*

Euskera ta Elizea, izenez bigunak...
 Ta izatez gozo gozo ta osoro legunak,
 Guri Goiko Jaunak
 Goitik bialduriko egizko ondasunak,
 Maitegarriak dituz biotz euskaldunak.
 Amatxu kutunak,
 Zeurok maitatzen emon nai dodaz egunak!

Alperrik Inpernuak, Ama orren kaltean,
 Maitetasuna il nai dau nire biotzean...
 Jaunaren etxean
 Erreko dot biotza maitetasunean,
 Suak iratzi dayan biotzan ganean:
 «Amokaz batean
 Ibilgo da biotz au bizi dan artean».

Betoz, betoz ekatxak euskaldun errira,
 Maitetasun au bota-gurarik obira!...
 Betoz Euskadira!...
 Baila ez, ez. Zertarako, alperrik badira?
 Amok biotz ontatik aldenduko eztira.
 Zerura-begira
 Nire maitetasunen garrak bizi dira!

Ezta bizi gizona maitetasun barik...
 Ta Amon maitetasunak nauko ni bizirik.
 Eurak ikusirik,
 Bauko nire biotzak naiko pozgarririk.
 Eztakit zelan egon leiken euskaldunik
 Ai! biotz guztirik
 Ama biok maitetu eiten eztauzanik.



Euskaldun bakotxaren biotz bakotxera
 Bialdu gura neunke neure sentiera...
 Biotzok batera...
 Danok... goratu dayen Amon izakera...
 Nai neunke biotz danok, neurean antzera,
 Emetik aurrera,
 Laztanik kantatzea Eliza ta Euskera.

Negarrez dagoz orain Ama maite zarrak,
 Euskadin ikusirik ainbat seme... txarrak...
 Euskaldun txatxarrak,
 Izenez euskaldunak, izatez zantarrak,
 Amaren kalterako egiten indarrak.
 Biotz euskotarrak,
 Geure maitetasunen maitetasun-garrak
 Legortu beiz apur bat Amaren negarrak.

Euskaldun seme danok emen lur onetan
 Maitetu bear doguz... maitetu benetan...
 Denpora danetan...
 Euskera ta Elizea, uri ta errietan,
 Lur au itxi ta gero,... Asabak goyetan,
 Zeruko ateeian,
 Pozik artu gagizan euron besoetan.

Esango al deuskue Goitik Oienart andiak,
 Mogel, Elizanburu ta Larramendiak,
 Eusko leñargiak:
 Zurok zare Elizaren semetxu onetsiak,
 Zurok Ama Euskeraren seme maitatiak.
 Biotzez guztiak
 Gozotu nai dozuez Ama orren urtiak!

GAURKO GAUZAK!...

Zer da gaur emen indarra?

Zidarra.

Eta gizonen burua?

Dirua.

Ta geyenen ardurea?

Urrea.

Ta mutilla ta agurea,
 Batera ta amurruturik,
 Babiltz yaditxi-gurarik
Zidarra, Dirua, Urrea.

Zer dau gizonak gauza utsa?

Biotza.

Zer beretzat geyegia?

Egia.

Ta iya alperreko gauzea?

Lotsea.

Gauza gatxa da aurkitzea,
 Beraz, gaur, gizaldi onetan
 Bizi diran gizonetan,
Biotza, Egia, Lotsea.

1905-eko urtean



EDER EDERRA,... GARBI GARBIA

*Tota pulchra es, amica mea,
et macula non est in te.*

Guxtiz ederra zara, neure maitea,
ta eztago zukan orbanik.
(Canticus canticorum,
cap. IV, vers. 7).

Eder ederra da ta zoli zolia
Desusen Ama, neure Ama Maria.

Bere arpegia,
Udabarriko lorak legez yagia,
Neguko edurrak bezin zuri ta argia,
Guzti guztia
Dago edertasunaren margoz yantzia.

Ederrak dira izarrak... Ama ederrago.
Ederrak Aingeruak... Ama geyago.
Zeruan dago
Aingeru danak baño askoz gorago
Ta izar guztiak baño bere argiago,
Ta iñor eztago
Jainko Ederragandik au baño urrago.

Guxtiz andia da, bai, edertasuna,
Jaunak gorputz orretan ezarri eutsuna,
Ama kutuna;
Ta andiagoa dozu garbitasuna,
Zeure arima eder orren lagun ezauna,
Lagun laguna,
Txerren loi ta ezaiñaren bildur astuna.

Garbitasun orregaz zara ederrena,
Ta edertasunez zara, bai, garbiena.
Ta zeure izena

Entzunik, bildurtzen da beti Txerrena;
Ta ostikopetuteko motzik motzena...
Loirik loyena...
Pekatua,... Zeu zara itxaropena.

Maria, eder ederra, garbi garbia,
Josizu arima onetan zeure irudia.
Ene Maria,
Zeruko baratzeko Udabarria,
Onbidezko loretan beti ugaria,...
Maitegarria
Da guxtiz zeure izate guzti guztia.



ERDEREA TA EUSKERA

Erdal-errian bizi naz orain,
 Erderearen lurrean.
 Ementxe nago: Salamankako
 uri erdalzale zarrean.
 Ementxe nabil, Euskera Amatxu,
 erdaldunakaz batean.
 Erderea dantzut abo danetan
 emen zatean-zatean;
 ta ezta mirari, bizi naz bada
 Erderearen Etxean.
 Erderea entzun bear dot, emen
 bizi nazan bitartean,
 Erdal-erria Euskal-erritu
 egiten eztan artean.

Erderearen otsak dantzudaz
 asko ta alkarren atzean.
 Bere durundu gogorrek dabiltz
 belarriaren ertzean...
 Nayago dodaz, Amatxu, zeure
 otsak, ots onen aldean...
 Baña... mirari al da entzutea
 Erderea erdaldun-lurrean?
 Oituta gagoz entzuten, bai! bai!
 euskaldun-leku danean
 Erderea gora Erderea bera,
 ta euskaldun askon artean
 dantzugu euskera erderaztua,
 euskera erderaz nastean,
 euskera bako erdere eiteko
 modurik eztagonean.

Or baño zori obagoa dozu,
 Ama Euskera, emen urrean.
 Or Erdereaz yosten zaitue,
 ta emen guztiak bakean

isten deutsue,... berbaille danak
 erdera egiñik utsean.

* * *

Erderea emen Euskera barik
 ikusten dodan antzean,
 ikusi nai dot, anai maiteak,
 Euskera bere lurrean:
 nasterik barik, Erderea barik,
 bakarrik eta uts utsean.

Salamankan, 1905-eko urtean



GEURE ARITZ ZARRA

Ikusi dot azkenean
 geure Aritza,
 ta berau ikusi-orduan
 beira batzuen barruan
 oso igarturik dagola,
 leitu yat miñez odola...
 Orririk bapere barik
 dago aritz errukarria...
 ai! guztia
 igarturik!
 Il zaitu lotsearen lotsak?
 Bai urrean,
 euskaltasunean otzak
 euskaldun semen biotzak
 ikustean...

Arako seme euskaldunak
 omena emoten eutsuenak,
 zeure azpitxuan baturik
 lege euskaldunak egiten,
 ostendurik
 daoiz nonbaiten.

Arako zar ta gazteak,
 sinistez bete beteak,
 ez zirean
 diruaren menpekoak
 ez guzurrari aldekoak.
 Biotzean
 Eliza, Erri ta Ama Euskera
 eukezan beti batera;
 ta il-artean,
 deabruak nai ezarren,
 bizi zirean pozarren
 aita-amaren
 sinistean.

Arek il ziran!! Ta oingoak
 gtxi dira arek langoak.

Asko ta asko
 dira euskaldun euskerazko
 arimarik bagakoak.
 Eta askontzat sinistea
 ta Elizeaz bat eitea
 eta Erria
 biotzez maitetutea...
 guzti au da astakeria.
 Eztabe maite Euskerea...
 Iñorako
 —diño— gauza ez talako,
 ta bai barriz Erderea.
 Euskereak ez ei dakar
 ogirik, eta ez padakar,
 zertarako?

Ona dala? Ona da bakar
 bakarrik zoroentzako.
 Diruak dakar ogia,
 soñekoa ta edaria.

Ia, dirua,
 zu zara geure burua,
 nagusia, agintaria!
 Dirua da oin atsegiña,
 ta au ekarteko alegiña
 egin daigun...
 Erderea dogu, jakiña!,
 lan onetarako lagun.
 Gora, ba, Erderea! Gora!
 Erdereaz gu edonora!

Zelan biziko ziñean
 olango euskaldun-artean?
 Lotsaturik,
 geratu bear zenduan
 orain zagozan moduan:
 igarturik!!



*Asuen (Gernikara izan ta
egun batzuk geroago),
1905-eko Irallean*

GARBITASUNEZKO EDERTASUNARI

*Erderazko eresi Bendita sea
tu pureza-ren antzera.*

Bedeinkatua izan beite,
Ama, zeure edertasuna,
Garbiarren dakazuna
Ta Jainkoak dauna ain maite.
Zeruan ainbat aginte
Daukazu, Amatxu laztana,
Ta ekazu bear dodana
Erbeste lakioz beteko
Onetan garbi ibilteko,
Ta eldu gero orra,... Zeugana.

1920-ko urtean



ARRESE, IL EI ZARA!!

ARRESE FELIPE EUSKEL-OLERKARIARI

Negarrez ezoturik ego zuriak,
Nastaurik malkoz ule zoragarriak...

Ta arpegi dana
Bustirik era sotil negargarrian,
Agertu yat eskutitz baten erdian
Geure laztana...

Arako Euskera Amatxu, geure kutuna,
Betiro maite biok izan doguna,
Ezti bizia...
Etorri yat negarrez dana yantzirik,
Negarren lañoekaz inguraturik
Gorputz guztia.

Ikaratu naz oso, ikusi-orduan
Amatxu Euskera zarra dagon moduan...
Dart-dart biotzak
Egin deust bere leku sakonenean,
Uste uste barik entzun dodazanean
Negarren otsak.

Negarrez esan deusat: —Laztan laztana,
Zek zakaz era orretan orain nigana?
Ai, geure errian,
Ama, naiko negarrik eginda nago!...
Ezin neinke negarrik egin geyago
Bizi guztian.

Amatxu, Euskal-erritik Salamankara
Nire negarren billa etorri al zara?
Negar barriak
Oin bere?... Amatxu, naiko lenak eztira?
Negarren negarragaz nekatu dira
Nire begiak.

Zek zakaz baña? Esaizu, Ama kutuna.
Negarrez ona ekarri egin zaituna
Zer da, maitea?

—Arrese il da, ta dakart oin bere il barri
Mingotsa zutzat, Paulo... Ezta mirari
Negar eitea...

* * *

Il zara? Il zara, Arrese, Arrese andia,
Euskera Ama zarraren olerkaria?
Arrese il dala?
Biotzak diñeust ezetz... Ia zeuk be, ia,
Esan eidazu, Arrese, zeure il-barria
Egia eztala!

* * *

Lurrean bizi bada zeure arimea,
Jaso bei berak zeure esku errimea;
Jaso beiz gora
Zeure min, abo, biotz eta eztarria;
Ta erdu, ia! joten zeure *lira* zolia
Aman ondora.

Kantaizu, ta ixilduko dira negarrak;
Kantaz etengo dozuz euron indarrak...
Biok batera
Asi gaitzezan, ia! kantu-kantari,
Pozez inguraturik ein deiten jarri
Amatxu Euskera...

Ai, baña ori arima ori eztago, urrean,
Emen, ez Bizkayan ez lurran ganean!
Beti zengozan
Gora adi, ta azkenean goratu zara...
Gorputza emen itxita, goi goyetara
Arimea yoan zan...

Salamankan, 1906-ko Urtarrillaren 19an



LAGUNDU, IA, LAGUNDU!

*«La Euskaria» izparringaren olerki-batzaldian
bigarren saria arturiko olerkia.*

*Lenengo saria olerkari gipuzkoar baten
olerki bateri emon eutsien, bere euskereari
gozoagoa eritxi eutsiela ta.*

Neure ama onaren sabel euskaldunean
Arima kantari au sartu zanean,
Kantok entzunik,
Iratzartu zan nire gorputz lotia
Ta atsegiñez mugitu ein zan guztia
Legun legunik.

Arimea gorputzaren barru barruan
Sartu zan, beingo baten, kanta-soñuan,
Eta gorputza,
Arritu zan ikustez zelan asi zan
Kantatzen, arimearen antz eta gizan,
Bere biotza.

A, zein ederto ebazan artu biotzak
Kantari lagunaren kantuen otsak!
Biak batera.
Egiten eben soñu entzungarria,
Aingeruen antzera, zoli zolia
Ta eder ederra.

Ta orduan biotzaren barru barrutik
Urtenda, eztakit zelan, yagi zan zutik
Biotz-ganean
Egodun andra eder bat, oso galanta,
Ta esan eutsen biai: «Kanta, ia, kanta
Neugaz, batean!».

Bai, bai; —erantzun eutsan arimatxuak—,
Euskaldunak dira gaur geure kantuak,
Ama maitea...
Yarri zeintekoz pozik gugaz kantari.
Ona emen zeutzat dozu gaur neure eztarri
Soñuz betea.

Eta zuk, biotz gazte, sortu-barria,
Eskeiñi yozu oneri zeure eztarria...
Euskera Amari
Eskeiñi taupada orren soñu leguna,
Atsegiñez beterik neure kutuna
Ein deiten jarri!

Bayetz erantzun eban biotzak, eta
Iruron eztarriak, eztiz beteta,
Asi zirean
Kantatzen eresi bat.. ai ze gozoa!...
Lengoa baño bere gozoagoa
Zan au urrean.

* * *

Ederto kantau eben Euskal-erria,
Neure Sorterti laztan maitegarria...
Ai, ze, pozarren
Nenbillen urten-nairik arin mundura,
Arek kantatzen eben euskaldun-lurra
Ikustearren!

* * *

Yayo nintzan, ta gero, nire begiak,
Argitu ebazanean Zeruko argiak,
Aman miñean
Ikusi neban berbaz Euskera ederra,
Ta esan eustan neugandu daidala bera
Al dodanean.



«Euskal-errian ago —ziraustan gero—
Ia ba, Euskal-errian agon ezkeru,
Gora begiak!
Ara an euskaldun solo, mendi, basoak,
Eta mendietako zugatz sendoak
Eta txoriak.

Maitatu nai badozak, ia, maitatu!
Baña ez gero erderarik eurari aitatu.
Maitetasuna
Orrentzat eztok iñoiz benetakoa,
Ezpadok euronaren irudikoa:
Euskeraduna...».

Maite dodaz! —erantzun neuntsan Amari—
Ta iñoiz egiten, banau euron kantari
Emen Zeruak,
Kantauko dodaz eurok, zeuri begira,
Ta euskalzaleak beti izango dira
Nire kantuak.

Itxi nire arimeari, anai maiteak,
Kantau daizala eresi euskalzaleak!
Badakizue
Zein dan nire arimearen maitetasuna,
Ta, ia! kantatzen bere gozotasuna
Itxi yozue.

Eta zeuron biotzak arima oneri
Lagundu nai badeutse, betoz kantari...
Ta ordu danetan
Euskaldun seme danon biotz guztiak
Yo beyez Euskerearen soñu zoliak
Min ta ezpanetan!

1906-ko urtean

JESUSENGANA

Katalintxuk jai-egun arratsaldetan,
Mosuka edanik Mari alargunaren
Negarra... dana...
Mariri esaten deutso: Ama, lauretan
Goazen biotz or poztutearren,
Jesusengana.

Eta lauretan beti, Etxezuritik,
Domeka ta jai-egun-arratsaldetan,
Amatxu otzana
Daroa Katalintxuk bere eskutxutik
Jesusen jauregira,... atsegiñetan,
Jesusengana.

Elizako ate zarrak irigitan,
Birjiñea ikusten dau altara baten;
Ta beragana
Eldu ta esaten deutso: Gerorartean,
Ama! Banoa amatxu au eroaten
Jesusengana.

* * *

Imiñirik gorputzak belaun-ganetan,
Yagi dira arimatxu biak eresten
Erregu bana...
Ta otoitzok egaz doaz, eztizko izketan
Bustirik, euron eske samurra egiten,
Jesusengana.

* * *

Otoitzaren ordeaz, zorionean,
Atsegiña ta poza batera doaz
Arimokana.



Ai! gu be estu ta larri gagozanean,
Zergaitik otoiztxu bat eiten ez goaz
Jesusengana.

Orra or Katalin pozik, Mari, pozarren,
Biak Birjiña Amaren altara-aurrean!
Ama onegana
Yoaten dira eskatzen, ein dayala arren
Eldu al deitela amatxu, larri daonean,
Jesusengana.

1905-eko urtean

ELIZAKO BURU LEON ANDIARI

Oraindik be kateak
Erroma orretan Leon Gidaria,
loturik dauke? Kartzeleko atearak
eztira irigi?... Au negargarria!
Geyago bere txarrak
entzungo dabez onaren negarrak?

Babil Azkatasuna
Lurraren alde batetik bestera...
ta ezta, bein, yoan oraindik Zugana,
onan kaltezko kateok austera?
Zelan da ain ezbaridiña
Azkatasunak eiñiko alegiña?

Ai! baña, zer diñot nik,
Azkatasunak bazaukoz katigu?
berak bazaukoz lokarriz yantzirik?
Tamalez badakigu
seme gazte ta zarrak
nondik datoza kateon indarrak.

Ori da *Azkatasuna*,
Donea katez lotuten dabena
ta Aita, ai! katigu iminten deuskuna.
Azkatasuna da beran izena.
Ona izenez... benetan...
Ai balitz ona bere egikeretan!

Txarrantzat da ondasuna;
Onantzat zarrak dakaz, ai! negarrak-
Deunga danantzat guztiz da biguna
ta onan kaltean dira bere indarrak.
Ori da *Azkatasuna*,
oyuka or ta emen entzuten doguna.



Beyoa guzurrezko
Azkatasuna lurbira onetatik...
 Eztot begirik berori ikusteko...
 Nire begiok nai dabe bertatik
 Leon Andia ikusi
 katerik barik Erroman nagusi.

1903-ko Martian

LURRA JESUKRISTORENTZAT

*Ustarizko euskal-yayetan, 1904-ko urtean,
 leneng saria arturiko olerkia.*

Irudimen laztatia, goazen batera
 Oroimen eztitsiak pozez ikustera,
 Itxas-basterrera!...
 Ara an dago Kolonbo, batetik bestera
 Laguntasunen billa ibil zan berbera.
 Indieta aldera
 Urten-nairik beingoan lurra atzemaitzera.

Eztautso Portugalek ez Ama Italiak
 Laguntasunik emon; ta Isabel Andiak,
 Andra leñargiak,
 Orra bialdu deutsoz iru ontzi barriak:
Santa María, Niña ta *Pinta*; Españiak,
 Fedez jantziak,
 Nai dauzalako fedez jantzi lur guztiak.

Egoak zabaldurik usoen antzean,
 Ontziok orain doaz alkarren atzean,
 Ta eurotan batean
 Alonso Santxez doa poztasun betean,
 Lurrak atzemaitu ta kristautzeko ustean
 Bidari-artean
 Bidari nagusi da Alonso bidean.

Zoaz zorionagaz, bidari euskalduna;
 Eukizuz adizkide betiro Osasuna,
 Arratsa ta Eguna;
 Ta bego ontzien alde Itxaso biguna,
 Lurbiran izan deiten laster ezaguna
 Arako leorruna
 Kolonbogaz aratu zuk gura dozuna.



Ta zuk, Amaboskarren Gizaldi maitea,
Andi andia dozu eukiko entzutea.

Ta omenez betea
Zeure larogetamabigarren urtea.
Ta onen Agorrillaren iruan astea
Kolonbon ustea
Agorrillak izan dau naiko suertea.

Larogetamar gizon, mariñelak danak,
Dira gure Kolonbok oiñ daroazanak.
Kolonbon esanak
Laguntzat daukez oindik gizon orren lanak.
Zoaze pozik olan, mariñel laztanak,
Bada or doazanak
Guzurtu egingo dabez askoren ezpanak.

Bakit esan dabela askok, ikusirik,
Kolonbo dabilela lurra topau-nairik,
Dagola bururik:
«Burua orrek daukala, ondo zuloturik»
Ez izan baña zurok ortan ardurarik.
Kolonbok ziurrik
Aratuko dau lurra, zurok lagundurik.

Canaries deritxoen leihorretaraño
Eldu zare, mutillak, ederto orraitiaño.
Bide asko oraindiaño
Dago Kolonbok topau nai daun lurragiaño;
Baña danok alkarri lagundu ezkitiaño,
Kristobalek diaño,
Elduko gara ziur lur ortaragiaño.

* * *

Ai! baña zoriona eztozu betiko!
Gizonak ainbat egun nekez beteriko
Dituz ikusiko.
Asi dira nekeak, ai! Kolonbontzako.
Badauko oin Kristobalek samiñik, ai! naiko.

Ixilarazteko

Mariñel asarreak, badau lanik asko.

Canaries-etik ara, topau barik lurrik,
Ogetamabost egun nekez igarorik,
Dabiltz bildurturik
Mariñel gizajoak, ta eztabe biderik
Aurrerantz egin gura nora yakin barik:
Biurtu gurarik,
Geyenak or dabiltz oin gorrotoz suturik...

Pozik ikusi dabe urrun urrunean
Zerbait *berdez* jantzia bedarren antzean,
Ta onetxen pozean
Urbiltzen dira, lurra dalako uste eñean;
Baña gauza berdeak uraren ganean,
Kolonbon kaltean,
Bedarki batzuk ziran...! Lurrik ez azpian!

Uts ori mariñelok arturik, alkarri
Dirautse: Eginn dezagun arrañen janari
Kolon zantar ori!
Yaurtin, ia! itxasora, ainbat egun larri
Emon deuskulako. Bai. Ta esan Española:
Zeruko izarrari
Begira zagolarik, bera dala erori.

Zeinbat neke yatortzuz, ai! biotz-erdira,
Kolonbo! Mariñelok baketuko aldira!

* * *

Pozik oin eidira...
Zer da ba? Txori batzuk oin agertu dira,
Ta ikusirik Kolonbok txorien mugira,
Deitzen dau: «Begira!
Goazen txori orrek doazan tokira!».



«Eztagoz guztiz urrun leiorrak eztari,
Jarraitu bildur barik txori kutunari.

Portugaltarrari

Agertu yakiezan naikotxu lur barri,
Pozarren yarraiturik txori bizkorrari».

Poztasuna ugari

Itz onek emon deutse mariñel danari.

Urriaren amaikan, gaubaro illunean,
(Amarrak joak ziran) Kolonbon ustean,

Nonbait, an urrean,

Argi bat yako agertu. Andik lasterrean
Ostendurik argi au, barriro agertzean,

Guztiak batean

Lurra! —deituten dabe—, Lurra, dogu aurrean!

Bigaramon goizean danak dabe gura

Yoan gabaz argia egon zan lekura...

Ta ez zan ez guzurra

Kolonbok uste ebana. Antxe dago lurra!

Ara or orain, mariñel argalak, leorra!

Kolonbo bizkorra,

Zure izena izango da izen illezkorra...

Mariñel danak dira jarri belauniko.

Batzuk, Kristobaleri, iraindu ebelako

Parkaeskaturteko;

Besteak, Kolonbogaz batean, Jaungoiko

Onari eskerrak bertan obeto emoteko,...

Poztasunik asko

Leorra erakusteaz emon eutselako.

Jazkirik ederrenaz Kolonbo yantzirik,

Eskuan espatea zutik ipiñirik,

Jatziten da ontzitik;

Baita mariñel danak Kolonbon atzetik.

Gero leior berean danak auzpaturik,

Biotz-biotzetik

Otoitz egiten deutse Jaunari bertatik.

Otoitz egin-ostean, bertan zut txiker bi

Kurtze baten antzera josirik alkarri,

Mendiska bateri

Bandera-tzat Kolonbok egin deutso ezarri,

Esaten deusiela mariñel danari:

«Lur kutun oneri

Izentzat *San Salvador* bear yako jarri».

«Lur au gaurtik aurrera Jesukristorena

izan bedi! ta Kriston aldun fedetsuena:

Fernando Onarena!

Ta Isabel Españako Buruzagiena!

Sinismenarena

izan beite, diñot nik, Kolonbon omena!

* * *

Bahmas-ko urartetara sinismenaren garrak,

Alonso ta Kristolaal, zaitueze ekarri.

Izan beitez zeurokaz betiro españatarrak

Zeuron sinismenaren indarren kantari.



EZ ZAITEZ IL, AMATXU!

*Ordiziako (Villafrankako) euskalyayetan,
1904-ko urtean, lenengo saria arturiko olerkia.*

Begoz Euskal-erriko mendien begiak
Zerura begira ta zerurantz yagiak,
Zeruan jarriak

Arkitzen dira bada gauza pozgarriak
An dagoz lur ontako seme leñargiak:
An Larramendiak,
An Astarloak eta Oihenart andiak...

Ai! baña eder-zaleak mendiok badira,
Ezpeye gaur begitu euskeldun-errira!
Onen arpegira
Ezaintasunen loyak asko yausi dira...
Ai, bere oraingo oiturak lengoak eztira!
Lur oni begira
Mendiok orain beintzat jarriko ez al dira!

Mendiotatik *mur mur* dator ur ederra...
Betor, baña negarrez, lur onen ganera,
Aitorren izkera
Zarrari negarrakaz negarra kentzera.
Ta Euskal-erriko txori maiteak batera
Amaren aurrera
Negar-soñuan betoz kantatzen Euskera...

Euskal-usaindun lora zuri ta gorriak.
Zabaldur biotzaren albotiko orriak...
Ta orritxu guztiak
Izan beitez Amaren negarraz bustiak.
Gorde maitetasunez, lora maitetiak,
Amaren begiak
Eskeintzen deusuezan negar ugariak.

Ai, zeinbat zeinbat diran Amaren negarrak!
Auzpazturik imin dau negarren indarrak
Euskaldun kaskarrak:
Noizko noizko dozuez biotzeko garrak?
Ta noizko orrako Asaben odolaren ondarrak?
Biotz Amatarrek:
Negarrez ezpei galdu bizia Ama zarrak!

...Zer baña? Lotan zagoz oindik, euskalduna?
Iltan eztozu ikusten Amatxu kutuna?
Beran osasuna
Zeure miiña da, balitz beretzat laguna,
Euskera balitz beti bertan yabiltzuna.
Non dozu zentzuna?
Erdu, ia, osatutera Euskera biguna!

Betor min euskalduna bere sendagarri
ziurak emotera Ama gaixoari.
Euskadin eztarri
Guztiak izan beitez Amaren kantari.
Eskeiñi, ia, biotzak, loturik alkarri,
Amatxu Euskerari,
Eurotan osasunez egin deiten jarri!

Negarrik egin barik, poztasun betean,
Amatxu bizi beite euskaldun-arteetan;
Ta amagaz batean
Zoriona izango dogu, Asaben antzean.
Entzun deitela beti emen ta urrunean:
«Amaren pozean,
Poz pozik bizi gara lur onen ganean».

«Maite zaitut, Amatxu, ez egin negarrik!
Zein seme biziko da, Amatxu, zu barik,
Umezurtz egiñik?
Seaskan nengoala zeugaz alkaturik,
Zeugaz gura dot egon betiro baturik.
Ta zugaz egonik,
Badaukat lur onetan naiko zorionik».



Itz onek dira Amantzat osasungarriak.
Eurok entzun-gururik daukoz belarriak
Osoro larriak...
Biotzak ezpanetan kanporuntz jarriak
Ipiñi beiz Amantzat itz ain pozgarriak,
Atsegingarriak;
Amaren bularrentzat arnasa barriak.

Foru ta oitura zarrak tamalez galdurik,
Euskaldunak zer dauko yagokon gauzarik?
Euskera bakarrik.
Ilten bayaku bera, eztogu besterik!
Maitatu daigun, bada, Euskera Ama gaurtik
Biotz-biotzetik.
Ezpeite iñoiz aldendu, ez, Euskal-erritik!

Ez zaitez il, euskaldun-lurreko Erregiña,
Jaunak Paradisuan lorakaz antxiña
Amatzat egiña!
Zeu zara nire biotz-barruko atsegiña.
Zeu zara nire ezpanak dauken krabeliña.
Zutzat nire miiña
Goxo goxoa beti, iñoiz be ez samiña!!

EUSKALDUN GUDARIAK

*Baigorriko euskel-yayetan, 1905-eko urtean,
bigarren saria arturiko olerkia.*

Bayonako «Eskaldun Ona»n, neuk ezagututen eztodan euskel-irazole batek (J.E. firma-tzat iminten dau), *Baigorriko phestak* buruztat imiñiriko irakurkizun edo artikulu baten, auxe diño, beste gauza askon artean:

«Bainan beha, beha, nor doan teatreari goiti bigarren garbait sariaren —untz erdi bat— eskuratzera: español aphez-gei gazte bat, ja sotana jauntzia, Bizkayatik ethorria egun airosik, pertsulari eta eskual-zale khartsuenetarik bat, dituela bi urthe Donapaleon lehen prima eraman zuen hura bera: *Pablo de Zamarripa y Uraga*. Badoo lañoki, batere ahalgerik gabe, jendeak eskuz joka eskerrak bihurtzen daizkolarik... Zer erasiko dut jaun gazte haren obraz, baizik hauxe: Bizkayanoa ez dudala izpirik aditzen, eta jujeek berek aditu ukhan balute, lehen prima emanen zakotela bi begiak hetsirik, nahiz Donapaleon ondarreko aldan biziki gehiago izan zen...».

Eskerrik asko, adizkide ezezauna!

Amatxu Euskal-erria, neure erri maitea,
Ze zorion andia zugan ibiltea!
Zeugan, Amatxu, zeugan pozkidaz betea
Dabil nire bioztxu euskaldun gaztea!

Zeugan nabil ni sortu nintzanetik gora,
Urten barik euskaldun lurretik kanpora;
Ta eztot gura zugandik alde egin iñora,
Ezpada Zerura, Ama, Asaben albora.

Araxe bai pozarren, Jaunak deitutean,
Joango nintzake, Amatxu. Baña bitartean,
Eriotzak gorputz au lurperatu-artean,
Gabiltzan biok, gorputz ta arimez, batean.

* * *



Zure lurretik urrun aurkitzen diranak,
Euskaldunak badira, damu dabe danak
Zu itxitea, ta miñez semeon ezpanak
Diñoë: «Non dira, Ama, zure lur laztanak?

Non dira zure zelai ta mendi euskaldunak?
Zure elizatxu ta etxe margo zuridunak?
Zure txorien kantu gozo ta legunak?
Ostu deustez betiko zeure urruntasunak».

Urrun egozan, urrun, Rhingo ibai-ertzean,
Milla zortzireun eta bosgarren urtean,
Garagarril-erdian, gudarako ustean,
Lauezpabortz gudari, ta danok batean,

Izanik euskaldunak, urruntasunean,
Solasa eben euskaldun lurraren ganean.
Ta ikusirik egola au leku urrunean,
Ai, ze samiña eukien biotz-barrenean!...

Urrun Auñemendiak... ta euskaldun basoak,
Urrun aitona-amonak,... urrun gurasoak,...
Urrun anayak, urrun atsegin osoak,
Urrun egozan euron pozkida gozoak.

Baigorriko festetan pelotan eitea
Zan ayetan bik euken guraizatea.
Itzemana zutenez, baña au suertea!
Urrun gudari dagoz!... Gaitz da ara joatea.

Harispe aitzindaria bederen ondoan
Balego! Arek baimena emon lei, ta orduan
Joan leitekez, baña orain zelan joan,
Aurkitzen ezpadabe *Harispe* inguruan?

Guda ezta asiko baña, diñoë orain pozik,
Alamaneri buruz, Buruilean beizik;
Anartean badegu gura beste egunik
Joan ta etorriteko partida an egiñik.

Badoaz, ta osasunez ederto eltzen dira
Amabots egun barru biak Baigorriara;
Festa-besperan txutxen... Festaren begira
Larri dagoz joateko pelota-tokira.

Partida asi da noizbait. Lau pelotariak
Eurakanduten dabez ikuslen begiak
Arrituak ikustez ain gorputz zoliak,
Ain beso zantsu ta anka txit ibiltariak.

Pelota biribilla, oin orra ta oin ara,
Ormatik eskura ta eskutik ormara,
Egaz dabil pozarren, eskuen indarra
Laguntzat daroala leku danotara.

Ikuslaren begiak pelota ikustean
Egaz doala, doaz egaz bere atzean;
Ta olantxe atsegindurik beragaz batean
Dabiltz pelota bera geratu-artean.

Oraintxe da azkenengo egaztadaldia.
Norentzat izango dan berau pozgarria
Jakin-nairik ei dago jende-pillo andia,
Txaloka ari emoteko atsegin barria.

Gogor dabiltz mutillok; iñoizko gogorren,
Laguna lagunagaz, etsaya etsayaren
Kaltez; laurak or dabiltz... ta laurak pozarren..
Etsayari partida irabaztearren.

Laurak dira pelotan ikaragarriak.
Guztiak onak; baña gure gudariak
Makaltzen dabez beste bi jokalaria,
Ta irabazi partida ta txalo ugariak.

* * *



Txaloen zaratakaz pozturik, batera
Gudari biok doaz gudaritaldera,
Zintzorik gudan bere bear egitera
Baigorri pelotaka ein eben antzera.

Lau illabete igaro-orduko Austerlitz
Bata-besten alboan ebiltzan gudatzen,
Ta aurrez aur zeinbat etsai ebezan aurkitzen
Ainbeste ebezan eurak indarrez zapaltzen.

Zirautsan bitartean batak besteari:
Nayago neunkek, mutil, Baigorri oin ari
Pelotan, baña jarrai emengo lanari,
Urten daigun an legez emen garaizlari.

* * *

Amagandik urrun ta etsayen aurrean
Zintzorik Frantziaren alde bearrean
Ara an euskaldun biok... guda gogorrean,
Guda bizikentzalle sutsu ta aserrean!

Indarra ta adorea baturik benetan
Ikusi geinkez orain mutillon zanetan.
Aitu nola Eriotza zitala eskuetan
Arturik, sartzen daben gorputz etsayetan...

O zeinbait etsai jausi direan lurrera
Odolez gorriturik alkarren ganera!
O zeinbat doazen, o! il-aiñik jaustera
Geure gudari euskaldun gogorron aurrera!

Ori bai dala indarra! Ta ori adorea!
Ori da etsai guztiak birrindu-gurea!
Ikusirik mutilion indar ta ardurea,
Dazaut Asaba euskaldun zarren itxurea.

Ta eztauke biotzetan mutilok bildurrik.
Ez, ez. Beuke bildurra etsayak bakarrik!
Euskaldunak, Amatxu ikustez pozturik,
Egingo dabe alegin guztia azarturik.

Zer baña? Non dakuse Amatxu, urrunean
badago? Bai, dakuse. Biotz-barrean:
Bera omentzeko dauken asmo zuzenean;
Euren biotzak deuten maitetasunean.

Urruntasunen poza da maitetasuna.
Emen, ta emetik urrun, biotz euskalduna,
Edonon maitetuizu Amatxu kutuna,
Maite izan barik iñoiz bere urruntasuna.



EUSKAL-ERRIKO AINGERU JAGOLEARI

*Begarako euskal-yayetan, 1905-eko
urtean, lenengo saria arturiko olerkia.*

Zure ego zurietan yarririk, Euskera
Pozarren etorri zan Tubalen lurrera,
Tubalgaz batera
Euskal-erri dontsu au sortu ta anditzera;
Ta Euskera izan zan etnen ordutik aurrera
Lur-ontako izkera.
Euskeraz kantatzen zan bere sortuera.

Pozik ibil ziñan zu, Tubalen antzean,
Euskaldun danon Ama pozkiro ikustean,
Atsegin betean,
Jarririk euskaldunen biotz bakotxean.
Pozik ibiltzen ziñan Amaren atzean,
Euskaldun-arte
«Euskera maite dogu» betiro entzutean.

Gogoz ibiltzen ziñan gizaldi zarretan,
Ikusirik Euskadin, erri ta urietan,
Leku guztietan
Euskera bizi zala euskaldun miñetan
Guztiz ondo, osasuntsu, zoritsu benetan.
Amak lur onetan
Zeru txiki bat eukan zuretzat oinpetan.

Zeru txiki bat zan, bai, Asaben erria,
Gizaldi aretan goruntz sinistez jagia.
Zan Euskal-erria
Paradisu zarraren irudi barria.
Au zan aingeru-antzeko gizonen kabia.
Au zan jauregia
Euskerak onbidentzat zeugaz eregia.

Jauregi ontan izanik Euskera Erregiña,
Lagun zan onbideaz pozezko atsegiña.
Ta euskaldun birjiña
Mutil errubageaz zan dantzari ariña,
Asmau barik oindiño baltzeo zikiña.
Dantza loizko griña
Euskadin ez zan iñon biziten antxiña!

Euskal-gazteen santzo ta irrintzi zoliak
Poztuten zituezan zelai ta mendiak.
Ayek irrintziak!
O, ze gozoak ziran! Badaki Illargiak.
Illargientzat ziran irrintzi guztiak
Eztitan bustiak;
Ta euskal-eztarri danak, eztizko eztarriak...

Dana zan atsegiña, dana poztasuna
Gizaldi ayetan zutzat, Aingeru kutuna;
Zalako euskalduna
Baster danetan ona ta Amantzat leguna,
Biotzez maitetuaz onen osasuna:
Bakean biguna,
Gudetan indartsua, beti fededuna.

* * *

Gizaldi zarrak eta gizaldi barriak
Oso ezbaridiñak dira gure gizaldiak!
Gizaldi guztiak
Ikusi dabez ondo, ai! zure begiak...
Ta, zeintzuk ziran zutzat atsegingarriak,
zeintzuk pozgarriak,
Ezpada gure Asaben gizaldi garbiak?

Non dira orain arako irrintzilariak?
Ai, ai, ixildu dira eztarri onetsiak,
Maite maitatiak...!
Ta beste irrintzi batzuk, gorrotogarriak!!



Minberatuten dabez gure belarriak...
 Ai, birao txarriak
 Irrintziaren orde zantzuez mendiak!

Non dira geure oitura garbi zerutarrak?
 Il dauskuz, ai! geyenak euskaldun zantarrak.
 Gau ta egun, ibarrak,
 Mendiak, lorak eta txori menditarrak
 Gorrotau beyez anai txar orren indarrak...!
 Ta, ai, nire negarrak
 Kantauko dituz beti gure ekandu zarrak!

Ai, ezta Euskal-erria antxiña izan zana!
 Ezaindurik daukagu Asaba-erri dana!
 Ta Euskera laztana...
 Ai, zeinbat samin datoz Euskera Amagana!
 Negarrez dago ikusten seme txarron lana,
 Eriotzagana
 Euskaldun izatea gogoz daroana.

Euskera il gura dabe! Ori itsutasuna!
 Ezta naiko galtzea lege-zar biguna,
 Euskal-ondasuna?
 Amatxu il orain? Orrek non dabe zentzuna?
 Zergaitik il nai dabe izkera leguna,
 Euskera kutuna?
 Zer baña? Eztabe maite izate euskalduna?

Ai, ai, ilten bayaku Euskera garbia,
 Nire maitetasunen urrezko kabia...!,
 Au negargarria!...
 Ilgo da Euskal-erria, Asaben erria!
 Agortuko da euskaldun pozen iturria!
 Zeure jauregia
 Apurtuko da, Aingeru beneragarria!

Ta, egongo ete naz ba ni... bizirik lurrean,
 Eriotzak Euskera, obi-barrean
 Imin-dayanean?

Lenago euki gura dot gorputza lurpean,
 Euskera jarri deiten neure autsen ganean,
 Jaunagaz batean
 Arima euron begira dagon bitartean!



AIKO ANTOJAGARRIE! (TXORIERRIKO EUSKERAZ)

*Mari Bekortako neskatilla zintzo garbiri,
bere auzoko neskatilla-lagimakaz, dantza-lekuan,
aurreskua noiz-asiko begira dagoala,
mutil orditu bat yatorko baltzeoan
beragaz egiteko itsu-soñura eroan-gurarik.
Ona emen zer diñotson Marik:*

Ardaoz beterik ator.
I moskortute ao;
zagi danak batera
baño be moskorrao.
Buru zoro ori baño
askozaz astunao
dekok gorputz ustela,
satsa baño ustelao.
Nigana ator, moskorti,
ardaodun txarrie,
baltzeoan lagundu
dayan neuk? Ordie,
alde ortik! Etxoak gure,
antojagarrie!

*Barriro ekiten deutso mutil ordiak
lagunduteko berari dantzan.
Ta orduan diñotso:*

Entzun dok. Etxoat gure,
antojagarrie.

*Laguna bear daula berak dantzan
egiteko diñotso mutil ordiak. Eta
onetara Marik olan erantzuten deutso:*

Zutunik ibilteko
bear bok lagune,
aituik nok galdu yoan
buruko zentzune.

Ni nok yantzan ariñe
ta ostean astune;
gauze duztietan ixen
guyoat euskeldune.

*Mutillak eskutik oratuten deutso.
Ta berak blidur gtxigaz diñotso:*

Ezeiztek niri oratu!
Geldi ia, astakoa!
Eztok entzun, baldrasko
ganorabakoa,
eztoala yantza ori
neure gogokoa?

* * *

Matralleko bat emon ta diñotso:

Joadi, orditzar ori,
zagien albora,
ardao pekatarien
upelen ondora!

*Mutillak birao ikaragarriak yaurtiten
dituz. Ta Marik asarre andiz diñotso:*

Txarrito, non ikis dok
erdera orren loye?
Berba txarriek eta
arnasa txarrie
ta adurre baño ezтана
badekok, ordie.
Aiko min zantarra! Aiko
ago moskortie!
Aiko mutil satsa! Aiko
antojagarriel

* * *



Biotz andidun neskatillea,
galanta gorputz ta arimez,
euskalduna da odolez eta
euskalzalea biotzez.

Ta bere arpegi urdin-urdiña
gorritu yako, deedarrez
biraoen aurka asi danean
amurru deunan indarrez.

Berez euskaldun neskatillea
ederra izanik artean,
amurru orretxen gorritasunez
yantzirik era ederrean,
askoz ederrao agertuten da
nire begien aurrean.
Edertasuna garbirik daukon
larrosa baten antzean.

* * *

Eta, zein ezain dagon
mutil moskortie,
adurrez ezoturik
aurpegi duztie!
Aiko ardaoz baltziturik
dekon aurpegie!
Aiko mutil satsa! Aiko
antojagarrie!

*Asi da aureskua. Ta an dabil Mari.
Ona emen berari begira andra bik
daukien berbaldia:*

—Aureskuen dabillen
neska yantzarie
nor da, gazteak? Nor da?
—Mari errotarie.
—Je bizkor dabil gero
gorputze duztie!

—Erromerien daon
jenterik erdie
berorren adi dao oin.
Ain da ikusgarrie
yantzan Bekoerrotako
alaba nausie!
Ta yantzarako dan lez
yantzari ain andie,
lanean da beargin
ikeragarrie...

—Ori bai de ixetea
yantzari garbie!
Ori bizkortasune!
Or dao, bai, grasie!
—Ariñek oñek eta
librean garrie:
or ekusten da, Kontze,
nor dan yantzarie.
Bedinketue Mari
yayo dan errie!
—E! Bakutsu or datorren
ordi sats andie?
—Ona dator gero?... Aiko
antojagarrie!
—Baltzeoan ibil de,
gorputzik erdie
lurrean dabilela.
—Bai, bai. A ze egie
Maritxuk esan dotson!...

—Ta ordi sats andie
ona dator...
—Bai? Aiko
antojagarrie!

Aldendu de landatik
egunen argie.
Beragaz aldendu de
yantzari garbie:
etsera yoan da arin



Mari errotarie.
Argi-zalea da, bai,
gure yantzarie.
Illuntasune arentzat
da bildurgarrie,
beran ustez dalako
pekatularie
illunetan dabillen
jenterik erdie...

* * *

Illunetan dao mutil
antojagarrie.

LAUS DEO